

29. atala  
**KIROLEAN FIN**

Jone eta Aritz paseoa irten ziren. Eguraldi ona ateraz zen egun hartan, jendea paseoa zebilen, oinez, korrika eta bizikletan ere ikusi zuten bat baino gehiago.

- Zenbat txirrindulari! – Esan zuen Aritzek bat-batean.
- Bai! Iurretan kirolerako ere badago ohitura.
- Ah bai?
- Bai-bai! Txirrindularitzak adibidez tradizio handia du Iurretan. Emakumeen Euskal Bira adibidez Iurreta-Emakumeen Bira izenez hasi zen 1988. urtean. Hasieran lasterketa amateurra zen baina 1992. urtetik aurrera profesionala da UCI maila gorenetakoa.



- Hara! Emakumeen txirrindularitza lasterketa bat?
- Hori da bai! Gaur egun ere Agurtzane Elorriaga iurretarra Bizkaia-Durango txirrindulari taldeko zuzendari lanetan aritzen da eta 2005. urtean Espainiako errepideko txirrindularitza txapelketan brontzeko domina lortu zuen.
- Ona! Txirrindulariez gain kirolari gehiago ere badira gurean Jone?
- Bai ba! Ezaguna da

**ARIKETA:**

- Atera kalera eta egin korrikalditxo bat

*Gurutze Frades triatloilaria adibidez, Espainiako distantzia luzeko txapelketa diru eta distantzia ertaineko bat ditu. Fernando Amorebieta futbolaria ere Venezuelan jaiotzen zen arren oso gazte etorri zen Iurretara bere gurasoen jatorrizko herrira. Bestalde, Kepa Arroitauregi pilotari profesional moduan aritu zen bi urtez eta gerora ere lan handia egin du pilotaren munduan, beti pilotari gazteei laguntzen.*

- Gu ere hasi beharko gara kirolen batean Jone! – Bota zuen Aritzek arreba zirikatzen.
- Baliteke bai! Olaburu pilota taldean eman genezake izena, futbol talderen batean, txirrindulari elkarteetan edo bestela Zaldai mendi taldean.
- Zaldai? Hori ez al da plazatik pasatzen den erreka hori?
- Horrek ematen dio mendi taldeari izena. Hainbat irteera eta erronka ezberdin antolatzen dituzte urtero herritar guztiontzat bertako kideek.
- Ea Iurretatik kirolari gehiago ateratzen den ez da ala Jone?
- Garrantzitsuena osasuntsu mantendu eta ondo pasatzea da Aritz. Hala ere gertutik jarraitu beharko dugu June Arbeo atleta gaztearen ibilbidea ere. Bi aldiz irabazi du Euskadiko kros txapelketa, behin Espainiako pistakoa eta mundialetan ere hartu zuen parte. Historia ez da iragana bakarrik Aritz orain ere historia idazten ari gara eta June oso maila altuan ari da lehiatzen!
- Aupa June! Animo! – Aritz lasterka hasi zen aldapan gora bere ametsak gauzatzen saiatzeko asmoz.